

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko 2021eko zergaren bilketa

Rubén Martínez Crespo, Bernedoko Udaleko alkate naizen honek.

Jakinazten dut 2021eko urriaren 6tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, zerga honen 2021eko ordainagiriak:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2021eko urriaren 6tik abenduaren 6ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 7tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak

Bernedoko Udalean izapidetu behar dira nola bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, hala helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bernedo, 2021eko irailaren 7a

Alkatea

RUBEN MARTINEZ CRESPO